

'Biblioporrak' gida argitaratu du Legazpiko liburutegiak, uda garairako

Liburuak eta ikus-entzunezko materiala proposatzen da, adin eremu zabala kontuan hartuta.

I. Luzuriaga

Legazpiko Udal Liburutegiak Biblioporrak 2008 udarako irakur gida kaleratu du, aurtengo opor garaian irakurtzeko eta erabiltzeko materiala proposatuz. Gidan 79 liburu gomendatzen dira, 9 musika disko eta 8 pelikula DVD formatuan. Adin eremua ere zabala da, 0 urtetik aurrera, 6 urtetik aurrera, 9 urtetik aurrera, gazte eta helduen sailak bereiziz liburuentzat. Ikus-entzunezkoen atalean helduentzako dokumentuak daude.

Zazpi liburutegiren artean egin dute gida. Legazpikoaz gain Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Eskoriatzakoa aritu dira. Legazpik seigarren urtez hartu du parte ekimenean. Liburuak eta ikus-entzunezkoak herri horietako liburutegietan har daitezke maileguan. Berritasunak izanik, merkatuan ere eskuragarri daude.

Ikastetxeetan

Gomendatutako gaien kalitatea bermatzeko, liburuegietako arduradunek ikusi eta irakurri dituzte; medioetan kritika onak jasotako materiala da. Ikastetxeetan banatuko dute gida, Legazpiko Udalaren webgunean dago eta liburutegietan eskuragarri egongo da.